



**EEPF**  
Euskadiko Euskal  
Pilota Federakuntza

**Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.**  
**Federación de Pelota Vasca de Euskadi.**

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

## **PARCENT TALDE BALENTZIARRA GARAILE, EUSKAL PILOTA SELEKZIOAK ITXURA BIKAINA EMAN DUEN EUROPAKO KLUBEN ARTEKO CHAMPIONS 2019 TXAPELKETAN**

*Gaizka Iruretagoiena pilotari euskaldunak jokatzen duen Parcent klub balentziarra gailendu zitzaion 6-3 finalean Benidorm talde balentziarrari.*

Larunbatean jokatu zen liga fasean bi emaitza desberdin lortu zituen Euskal Pilota selekzioak. Lehendabiziko partiduan 6-0 galdu zuen Benidorm talde balentziarraren aurka baina markagailuak ez du erakusten partiduan gertatu zena. Lehenbiziko hiru jokoetan 40-40 joan eta gero joko guztiak balentziarrentzat izan ziren eta ordu eta laurdeneko partidua eta gero amore eman behar izan zuen Euskal Pilota Selekzioak. Bigarren partidua berdintsu hasi zen gure selekzioarentzako eta lehen bi jokoak galdu eta gero txapelketako lehen jokoa egin ahal izan zuten. Behin hori lortuta gure pilotariak jokoan sartu ziren eta txapelketa irabazteko favorito nagusia zen Kerksken talde belgikarrari 6-3 irabazi zioten. Kerksken-ek Benidormi 6-3 irabazi zion eta gure lehenbiziko partiduko emaitzaren ondorioz ezin izan zuen Euskal Pilota Selekzioak finalerdietara sailkatu.

Finalerdiak igande goizean jokatu ziren gurutzaketak zozketa bidez erabakita. Benidorm vs Kerksken (bigarren sailkatu onena) izan zen lehen finalerdia eta talde belgikarra 4 pilotarekin geratu eta gero (lesionatu bat izan zuten) finalera talde balentziarra sailkatu zen 6-4 irabazi eta gero. Bigarren finalerdia Parcent (Balentzia) vs Thieulan (Belgika) izan zen eta balentziarrak gailendu ziren 6-3.

Finala igande arratsaldan jokatu zen Monticiano herriko kaleetan eta partida oso estua jokatu eta gero, azkenean Gaizka Iruretagoiena pilotari euskaldunak jokatzen duen Parcent talde balentziarrak irabazi zuen 6-3 2019ko Champions de Llargues txapelketa.

Euskal Pilota Selekzioak berriro erakutsi du gurea ez den pilotako modalitate honetan maila bikaina eman dezakeela. Aurkariak harriturik geratu ziren gure pilotariak emandako mailaz eta hainbat gonbidapen jaso dituzte hurrengo hilabeteetan lagun arteko partidu batzuk jokatzeke.



**EEPF**  
Euskadiko Euskal  
Pilota Federakuntza

**Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.**  
**Federación de Pelota Vasca de Euskadi.**

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: [info@eepf.org](mailto:info@eepf.org) / Astola 26 Abadiño 48220

## **EL EQUIPO VALENCIANO DE PARCENT CAMPEONA DEL CAMPEONATO DE EUROPA POR CLUBES CHAMPIONS DE LLARGUES 2019 DONDE LA EUSKAL PILOTA SELEKZIOA HA OFRECIDO UNA GRAN IMAGEN**

*El club Valenciano Parcent donde milita el pelotari vasco Gaizka Iruretagoiena gano 6-3 en la final a club valenciano Benidorm.*

En la fase grupos que se jugo en el sábado la Euskal Pilota Selektzioa cosecho dos resultados bien diferentes. En el primer partido perdio 6-0 contra el combinado de Benidorm (Valencia) pero el marcador no refleja lo ocurrido en el partido. En los primeros 3 juegos tras empatar 40-40 todos los juegos fueron para los valencianos y tras un partido de una hora y cuarto de duración la Euskal pilota Selektzioa tuvo que ceder. El segundo partido comenzó muy parecido para nuestra selección y después de perder los dos primeros juegos pudieron hacerse con el primer juego del campeonato. Una vez conseguido esto la Euskal Pilota Selektzioa comenzó a jugar y termino ganando 6-3 al gran favorito para la victoria final. Kerksken le gano 6-3 a Benidorm y a consecuencia del mal resultado del primer partido la Euskal Pilota Selektzioa no pudo clasificarse para semifinales.

Las semifinales se jugaron el domingo a la mañana y su composición se decidió por sorteo. La primera semifinal la gano el equipo valenciano de Benidorm 6-4 al equipo belga Kerksken (mejor segunda clasificado) que tuvo que disputar el partido con 4 pelotaris tras sufrir una baja por lesión. La segunda semifinal la gano el equipo valenciano de Parcent 6-3 contra el equipo belga de Thieulan.

La final se disputo el domingo a la tarde en las calles de Monticiano y después de un partido muy apretado el equipo Valenciano de Parcent donde milita el pelotari vasco Gaizka Iruretagoiena se proclamo campeonato de Europa por clubes 2019 tras vencer 6-3 a club valenciano de Benidorm.

La Euskal Pilota Selektzioa ha demostrado de nuevo que puede ofrecer un gran nivel en esta modalidad de pelota que no es nuestra. Los adversarios se quedaron muy sorprendidos por el nivel que ofrecieron nuestros pelotaris y ya han recibido invitaciones para jugar diferentes partidos amistosos durante los próximos meses.